



Arartekoaren 2019R-280-19 Ebazpena, 2019ko urriaren 21ekoa. Horren bidez, Getxoko Udalari gomendatzen zaio eskatzaileari eta haren familiari 2019ko otsailaren 18tik aurrera alta eman diezaiela erroldatzea eskatu duten etxebizitzan.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa aurkeztu zuen erakunde honetan familiarekin batera ezin zuelako erroldatu (...) kalean familia bakarreko etxebizitzan.

Kexagileak azaldu du, 2019ko urtarrilaren 18an, Getxoko Udalari eskatu ziola 2017ko urriaren 3an emandako eraikitze-lizentziaren arabera eraikitako familia bakarreko etxea lehenengoz erabiltzeko lizentzia emateko, abalak itzultzeko eta etxebizitzari alta emateko, han erroldatu ahal izateko.

Ez zuenez erantzunik jaso, 2019ko otsailaren 12an, udalaren Estatistika Sailean galdetu zuen zer izapidetze-egoeratan zegoen etxebizitza berriaren alta emateko egin zuen eskaera. Arreta eman zion langileak adierazi zion, "etxebizitzaren alta" izapidetzeko, Hirigintza Sailak lehenengo erabilerako lizentzia eman behar zuela, etxebizitzari zenbaki bat esleitze aldera.

Erantzun hori ikusirik, interesdunak langileari esan zion etxebizitzak bazuela zenbakia, udalak emandako eraikitze-lizentziaren arabera. Horiek horrela, aukera bakarra eman zioten: idatziz eska zezala. Esan ziotenez, udalak hiru hilabeteko epea zuen erantzuteko.

Bestalde, kexagileak badaki atzerapen nabarmena izan ohi dela hirigintza-espeditenteak izapidetzeko orduan, bere lursaila eraikitzeko prozesua ere atzeratu egin zen-eta. Hortaz, bere iritziz, familia erroldatu ahal izateko lehenik eta behin hirigintza-izapide hori egin behar izateak oinarritzko eskubideak galtzea dakar (boto-, osasun-, eta hezkuntza eskubideak, besteak beste).

2. Kexaren xedea aztertu ondoren, Arartekoak informazioa eskatu zion Getxoko Udalari; hala, gaia erregulatzen duen sektoreko araudiari buruzko lehenengo gogoetak helarazi zizkion, eta errepikakorrak ez izateko, gogoeten hurrengo atalean aipatuko dugu.
3. Estatistika Sailak emandako informazioa ikusirik, interesdunak, 2019ko otsailaren 18an (erregistro-zenbakia: 00118), erreferentziazko etxebizitzan familia osoa erroldatzeko berariazko eskaera formala aurkeztu zuen.
4. Arartekoak informazio eskaera horri erantzun zion idazkari nagusiaren 2019ko martxoaren 21eko txostena aurkeztuz, honako era honetan:

"Para poder dar de alta una edificación y asignarle un número identificativo se exige que la edificación cuente con licencia de primera utilización, lo cual es lógico ya que de lo contrario se estaría dando numeración y alta a





edificios no amparados por la licencia necesaria para su uso, lo que obligaría al ayuntamiento a adoptar medidas para evitar un hipotético uso de vivienda en un edificio que no cuenta con licencia de primera utilización.

Respecto a los derechos fundamentales que el reclamante indica perder es preciso indicar que tanto el reclamante como su familia están empadronados en Getxo, en otra dirección y constan en el censo electoral por lo que no están sufriendo ninguna pérdida de derechos.

Finalmente le indico que por la Policía Local se ha realizado el informe cuya copia se adjunta del que no se puede deducir que la vivienda sea la residencia habitual del reclamante y su familia.

No obstante lo manifestado se tratará de agilizar al máximo la resolución de su solicitud de 18 de enero de 2019”.

Aipatzen den Udaltzaingoaren txostena Estatistika Sailak eskatuta egin zen, eta erreferentziazko etxebizitzan martxoaren 12tik 17ra honako ordu hauetan egindako jarraipenaren berri ematen du: 10:23, 12:05, 17:05, 12:47; 9:07, 17:04 eta 10:26. Laburbilduz, txostenak dio lehenengo egunetan garajea eta leihoak itxita zeudela, nahiz eta ikuskapena egin zuen agenteak ikusi etxeko gauzak zeudela bertan; barruan, baina, ez zuen inor topatu. Martxoaren 16an eta 17an, aldiz, egiaztatu zen eraikineko goiko solairuko leihoak irekita zeudela, eta finkaren barnean ibilgailu bat zegoela. Egoera hori arratsaldean errepikatu zen, eta baita ikuskapena egin zen azken egunean ere.

Gogoetak

1. Udal errolda bertako herritarrak jasotzen dituen administrazio-erregistroa da. Bertan ageri diren datuek udalerrian bizi direla egiaztatzen dute eta bertan dutela beren ohiko bizilekua (Tokiko Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugapenari buruzko Erregelamenduaren 53.1. artikulua, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak onartua).

Bestalde, erregelamendu horren 68. artikulua zehazten duenez, bizilagun guztiek jakinarazi behar diote udalari beren egoera pertsonalak jasandako aldaketa guztiak, baldin eta nahitaez udal erroldan agertu beharreko datuak aldatzen badira.

Hortaz, interesdunak, erregelamendu hori betez, familia-unitate osoarekin batera bizitzen jarri diren eraikitako etxebizitza berrian erroldatzeko eskatu zuen.

Horren harira, Estatistikako Nazio Institutuko lehendakariaren eta Autonomia Erkidegoekiko eta Toki Erakundeekiko Eskumenen Koordinaziorako zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpena onartu zen, udal-errolda





kudeatzeari buruz udalei argibide teknikoak ematen dizkiena (aurrerantzean, instrukzioa).

Hala, instrukzioaren 2.3. apartatuak honako hau zehazten du:

“El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo es, por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponder al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho.”

En tal sentido, “...las facultades atribuidas al Ayuntamiento en el artículo 59.2 del Reglamento de Población y Demarcación Territorial de las Entidades Locales para exigir la aportación de documentos a sus vecinos tienen como única finalidad «comprobar la veracidad de los datos consignados», como textualmente señala el propio artículo.

En consecuencia, tan pronto como el gestor municipal adquiera la convicción de que los datos que constan en la inscripción padronal se ajustan a la realidad, deja de estar facultado para pedir al vecino ulteriores justificantes que acrediten aquel hecho.”

Illo horretan, Arartekoaren aburuz, interesdunari ahoz emandako informazioa ez da zuzenbidearen arabera. Informazio horretan jasotzen denez, etxebizitza eraikiaren lehenengo erabilerako lizentzia eskuratu arte, ezin zen erroldatu hizpide dugun eraikuntza errolda-erregistroan alta eman gabe zegoelako eta zegokion zenbakirik ez zuelako. Hizpide dugun eraikuntzak zenbakia izateaz gain, eraikuntzako hirigintza-lizentziaren arabera, udalak ezin du prozedura tasatu bat erabili (biztanleen erroldako erregistroa, esaterako), beste helburu bat duen prozedura bat bideratzen baitu, hirigintza-diziplina.

Laburbilduz, udalak pertsona oro bizilagunen udal erroldan sartzeko betebeharra du hori egiteko eskatzen duen ohiko bizilekuan, baldin eta bere identitatea eta benetako bizilekua egiaztatzen baditu; horren harira, administrazioko erregistro honen arautzearekin zerikusirik ez duten kontuek ezingo dute eskaera horren ukapena arrazoitu, hau da, kontu juridiko-pribatuek edo, kasu honetan bezala, juridiko-publikoek (lehenengo erabilerako lizentzia).

2. Aurreko araudiaren esparruan, jarraian interesdunaren eskaerari lotuta udalak egindako jardunak azalduko ditugu, eta “prozeduraren” ondorio juridikoak.

Instrukzioaren 1.9 apartatuak honako hau zehazten du:

“Con carácter general, siempre que un ciudadano solicite el alta o la modificación de cualquiera de sus datos en el Padrón de un municipio aportando los documentos necesarios para probar su identidad, representación en su caso, y



residencia real en el mismo, se procederá a realizar su inscripción en el Padrón sin más trámite, siendo efectiva desde ese momento y sin que sea posible otorgarle efectos retroactivos."

Beraz, lehenengo ondorioa da eskaeraren unean eroldan alta eman behar zaiola berehala, betiere ez badago zalantzarik bere identitatearen eta benetako bizilekuaren inguruan. Araudi horren arabera, ezin da atzerapenik egon eta ezin zaio interesdunari eskatu erregistro horretan izena emateaz besteko izapiderik egin dezan.

Instrukzioaren 1.10 apartatuari esker, eskaeran esleitutako datuak egiazkoak direla ikus daiteke *"Cuando existan indicios que hagan dudar de que se vaya a establecer la residencia en el municipio, o de alguno de los datos declarados por el ciudadano, antes de proceder al alta o a la modificación de datos en el Padrón, el Ayuntamiento, presentada la correspondiente solicitud por parte del interesado, ordenará los actos de trámite necesarios para comprobar la veracidad de los datos consignados en la solicitud, dictando la correspondiente resolución."*

Kasu honetan, udalaren estatistika atalak etxebizitzaren egoera egiaztatzeko eskatu zion Udaltzaingoari, eta txosten hori eskatu zen zalantzan zegoelako familia horren benetako bizilekua eta erreferentziazko helbidea bat zetozen; arrazoi horrek legezkatuko luke eskatzen den izapidea. Hala, egiaztapena egiteko instrukzioan zerrendatzen dituen frogabideen artean (2.3 apartatua), Udaltzaingoaren txostena eta hainbat dokumentu jasotzen dira (argindarraren, uraren ordainagiriak eta abar); haien guztien helburu bakarra da eskatzailea eta haren familia etxebizitza horretan bizi direla **frogatzeko** elementua izatea.

Izapiderako egintzak, egindako proba barne, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako prozedura orokorrean txertatzen dira. Ondorio horietarako, prozedurak bideratuta, eta ebazpen proposamena idatzi baino lehen, interesdunei jakinaraziko zaie hamar eta hamabost eguneko epean, alegazioak egin eta egokitzat jotzen dituzten dokumentuak eta egiaztagirak aurkez ditzaten (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 82.1 artikulua); interesdunak baieztatu duenez, izapide hori ez da egin, ez da nahitaezkoa, eta horren ondorioa da betetzen ez bada, baliogabetu egingo dela babesgabetasuna dela eta.

Illo horretan, idazkari nagusiak bere txostenean egindako probaren balorazioa, hau da, ezin dela ondorioztatuta etxebizitza kexagilearen eta haren familiaren ohiko bizilekua denik, desegokia da; izan ere, aholkularitza juridikorako txostenak interesdunen entzunaldiaren ondorengoa izan behar du (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 82.1 artikulua) eta interesdunak berak aurkeztu ahal izan dituen alegazioak eta frogak baloratuko dira, alegia, bere burua babesteko aukera eman ondoren.



Udalak nahitaezko entzunaldi izapidea ez betetzean froga gisa egindako txostenaren baliozkotasun faltari buruz esandakoa gorabehera, honako hau adierazi behar da, etorkizunari begira, hala badagokio: egoera jakin bat ukatzen duenak (interesduna erroldatuta dagoen etxebizitza, esaterako), behar bezala frogatu behar du eta, kasu honetan, Udaltzaingoaren txostenak egiaztatu du ikuskapena egin zen zenbait egunetan etxeko gauzak zeudela barruan, leihoak irekita eta ibilgailu bat eraikuntzan, hau da, higiezinan jendea bizi zela adierazten duten zantzuak zeudela. Gaur egun, edozein etxebizitzatan, ikuskapena egiten den orduaren arabera, agian inoiz ez da inor topatuko (haurren eskola ordutegia dela-eta egun guztian kanpoan daude, gurasoek kanpoan lan egiten dute...); horregatik, ikuskapeneko txostenak kontu handiz eta zehaztasunez egin behar dira, eta beste zantzu batzuekin osatu (adibidez: bizilagunen testigantza, ordainagiriak eta abar).

Nolanahi ere, azpimarratu behar da egindako txostenak soilik egiaztatzen zuela egiaztapena egin zen aste horretan, zenbait egunetan, ez zutela inor topatu, eta txosten horrek zer-nolako garrantzia duen aintzat hartuta, entzunaldi izapidea betetzea eskatzen duela; hala, interesdunak nahi dituen frogak eta alegazioak aurkeztu ahalko ditu alta eskatzen duen etxebizitzan benetan bizi dela egiaztatze aldera.

Dena den, Arartekoak interesdunarekin egiaztatu duenez, gomendio honen datan ez da ebazpenik eman; eskatzaileak, behintzat, ez du jaso. Interesdunak erroldatzeko eskaera 2019ko otsailaren 18an eskatu zuela kontuan hartuta, **isiltasun positiboa** dago, udalak bizilagunen erroldan alta emateko eskaera baiesteko edo ezesteko duen hiru hilabeteko epea nabarmen gainditu baita; hala, familia hori ondorio guztietarako udalerrri horretan erroldatuta geratu da eskaera egin zuen datatik aurrera. Horrela zehazten du instrukzioaren 1.13 apartatuak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24.1 artikuluari erreferentzia eginez, ebazpen bat epearen barnean jakinarazi ez izanaren ondorioak arautzen dituen.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Eskatzaileari eta haren familiari 2019ko otsailaren 18tik aurrera alta eman diezaiela bizilagunen udal erroldan, hau da, (...) kalean dagoen familia bakarreko etxebizitzan.

